



## PRENTSA OHARRA

Bilbao, 2011ko irailak 30

### Iñaki Gabilondok Euskal Kazetariak Saria 2011 jasoko du datorren asteartean

Saria **Alhóndiga Bilbaoko atrioan** 19:30etan ospatuko den ekitaldian jasoko du

Kazetari donostiarrak **Euskal Kazetarien Elkarteak** ematen duen onarpena eskuratu du bere ibilbide profesionalagatik

**Iñaki Gabilondo** kazetari donostiarrak datorren asteartean, urriak 4, arrotsaldeko 19.30etan, Euskal Kazetarien Elkarteak (AVP-EKE) ematen duen Euskal Kazetariak Saria 2011 jasoko du.

Saria, Alhóndiga Bilbaoko atrioan ospatuko den ekitaldian emango da eta bertan, **Elsa González**, FAPEko presidentea izango da eta baita **Javier González Ferrari**, Onda Ceroko zuzendaria, zeinak Gabilondoren irudiaren iruzkina egingo duen. Saridunak jasoko duen eskultura, Nicolás Alba eskultoreak parada honetarako espreski sortu du bere titulua 'El soñador de realidades' delarik.

AVP-EKEeko Zuzendaritza batzordeak saridunaren izena ekainean ezagutarazi zuenean Iñaki Gabilondoren azken bost hamarkadetan garatutako ibilbide profesional garrantzitsua azpimarratu zuen.

Gaztetik disdiratsu, Iñaki Gabilondok lan egin duen toki guztietan errealitatea aztertzeke eta azaltzeke gaitasun handia duela erakutsi du. Elkarrizketatzaile nabarmena, bere informatzaile lanak kazetaritza zintotasunez landu daitekeela aldarrikatzen du.

Telbistako kazetaria, artikulgilea eta idazlea, Iñaki Gabilondok bere aztarna utzi du espainiar irratian, lankide belaunaldi oso baten maisu bihurtu delarik, eta baita gizartearen erreferentzia ere.

Bi urtez behin ematen den Euskal Kazetariak Saria 2007an sortu zen Euskal Herrian jaiotako kazetarien ibilbide profesionala edota lurralde honetako komunikabideetan lan egin duten profesionalak igartzeko. Aurreko edizioetako saridunak, Manu Leguineche idazle, kazetari eta korresponentsala eta Sara Estévez izan ziren, azken hau Euskal Herrian kirol-kazetaritzan jardun zen lehen emakumea izan zelarik.

AVP-EKE Euskal Herriko erakunde profesionalik garrantzitsuena da, 300 profesional baino gehiago bateratzen ditu bertan eta Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioaren (FAPE) parte da.

## **BIOGRAFIA LABURRA**

### **Iñaki Gabilondo. Donsotia, 1942ko urriak 19**

Kazetaritzan lizentziatua (Nafarroako Unibertsitatea) 21 urterekin hasi zen irratian, Donostiako Radio Popularren (COPE) hain zuzen ere, eta 27 urterekin bertako zuzendari izendatu zuten. 1969an Radio San Sebastianeko (SER) zuzendari izendatu zuten eta bi urte beranduago postua utzi zuen Sevillako Cadena SERreko ordezkari zuzentzeko.

1978an Madrilera joan zen Cadena SERreko 'Hora 25' programa zuzentzeko eta bertako Informazio Zerbitzuetako zuzendari izendatu zuten 1980an. 1986ko irailaren 22an, eta hogeitaz, espainiar irratiko aitzindaria izan zen 'Hoy por Hoy' programa gidatu zuen.

'Noticias Cuatro' albistegia aurkzetu ondoren, gaur egun desagerturik dagoen CNN+ katera pasatu zen.

Urte honen hasieran 'El fin de una época' liburua argitaratu zuen. Bertan bere bizitza profesionalari buruzko gogoeta bat egiten du eta bere beldurrak azaltzen ditu etengabe aldatzen ari den lanbidearen inguruan, kazetaritza, hain zuzen. "Testigo de la historia" (2005) eta "Verdades como puños" liburuak ere argitaratu ditu.

Egun, El País egunkariarekin kolaboratzen du eta baita Cadena SERrekin ere "La voz de Iñaki" bideoblogean. 2011ko maiatzetik "Iñaki" titulua duen hileroko programa aurkezten du, Canal +en.

## **SARIAK**

**Iñaki Gabilondok** sei Onda Sari ditu, Urrezko hiru Antena eta Urrezko bi micrófono. 2007ko urtarrilaren 26an Juan Carlos Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu zuen.

Bere herrialdean, Donostian hain zuzen, Urrezko Danborra izendatu zuten 1988an. 2003an Gipuzkoako Urrezko Domina eman zioten. 2008an Ramón Rubial fundazioak Gabilondo saritu egin zuen "demokraziaren eta askatasunaren alde egindako defentsagatik".

Halaber, Lan eta Giza gaien Ministeritzako Lan Merituaren Domina ere badu eta baita Andaluziako Urrezko Domina, Catalunyako Generalitatearen San Jordi Gurutzea eta Gandhiren Urrezko Domina ere, Unesco bakearen alde duen saririk garrantzitsuena.

1990ean, Iñaki Gabilondok Ortega eta Gasset Irrati Saria eskuratu zuen. Madrilgo Prentsa Elkarteak Víctor de la Serna Saria eman zion 1996/1997 urteko kazetaririk onena izateagatik. 2003. urtean Europar Kazetari Elkarteak Gabilondo "kazetaritza askearen adierazgarri nagusia" bezala denitu zuen eta Francisco Cerecedo Kazetaritza Saria eman zioten.

## **Nicolás Albaren “EL SOÑADOR DE REALIDADES”**

Nicolás Albaren ‘El soñador de realidades’ izango da **Iñaki Gabilondok** datorren asteartean Alhóndiga Bilbaon egingo den ekitaldian jasoko duen eskultura. Sari honetarako espreski sortuta, artistak eskulturan sarituaren kazetari-ibilbidea irudikatu nahi izan du. Horretarako burdina eta forja erabili ditu, bere lanean gehien erabiltzen dituen materialak.

Alba Nafarroan bizi da eta bakarkako erakusketak eta baita talde-erakusketak egin ditu, espainiar lurralde osotik eta Portugaletik ere. Bestalde, bere lana Espainiako, Portugaleko eta Erresuma Batuko zonalde publikoetan erakusten da. Aipatzekoak dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mintzola Fundazioaren aurrealdeko azerozko obra, Lisboako Cervantes Institutuko lanak, A-68 autobidea edota Madrilgo udaletxea.

Berea da Manu Leguinechek 2007ko Euskal Kazetariak Saridun moduan jaso zuen ‘El cazador de palabras’ eskultura eta 2009an Sarita Estévezek (Euskal Kazetariak Saria 2009) eskuratutako ‘Maratón’ obra.

Informazio gehiago:

**ASOCIACIÓN VASCA DE PERIODISTAS - EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEA**

Telefonoa: 94.410.60.40

e-maila: [asociacion@periodistasvascos.com](mailto:asociacion@periodistasvascos.com)